



Aniztasuneko II Foru Plana.
Eskubide Berdintasuna

ELKARBIZI

Aniztasunaren aldeko udalerrien sarea






 **ELKAR
BIZI**

Elkarbizi sarea

Elkarbizi sarearen printzipioak	04
1. Zer da Elkarbizi sarea?	07
2. Zertarako Elkarbizi Sarea?	08
3. Nola antolatzen gara?	10
4. Zergatik eta nola parte hartu?	12

Elkarbizi sarearen printzipioak

Bere lanaren bidez, Sareak 2030 Agendaren helburuak lortzen ere lagundu nahi du, eta, bereziki, «*inor atzean ez uzteko*» printzipioa lortzen. Elkarbizi Sarearen misio orokorra gauzatzeko, parte hartzen duten udalek konpromiso hauek hartzen dituzte:



1

Beste udalekin lankidetzan aritzea, baita beste gizarte zibileko antolakundeekin, erakundeekin eta alderdi interesdun batzuekin, Elkarbizi Sarearen eta haren helburuen ezarpena lagundu, babestu eta ziurtatzeko.

2

Gipuzkoan diharduten **udal aniztasun teknikarien artean parte-hartze, ezagutza, truke eta entzute aktiboko espazio bat bultzatu** eta garatzea, lurraldearen egungo erronkei irtenbide komunak bilatzeko eta norberaren lana indartzeko asmoz, «II. Aniztasuneko Plana. Eskubide Berdintasuna» planeko ekintzak bultzatuz..

5

Elkarbizi Sarearen jardun-eremuan aktiboki laguntzea, «II. Aniztasuneko Foru Plana. Eskubide Berdintasuna» planaren lanketan, garapenean eta ebaluazioan kokatzen diren eginkizunetan. Plan hori ulertu behar da Gipuzkoako Lurralde Historikoan giza eskubideen eta aniztasunaren arloan hartzen diren politika eta jarduera ildoan multzo gisa.

6

Aniztasunaren ikuspegia Gipuzkoako Elkarbizi Sarearen ekintzan, eraginean eta kanpainetan garatzen dela bermatzea, eta GJHen, eta giza eskubideei, diskriminaziorik ezari eta eskubide berdintasunari buruzko printzipioei buruzko Europako, Estatuko eta foru mailako araudiaren esparruan lan egitea.

3

Elkarbizi Sarearen lana garatzea eta indartzea, udalen ekintzak bultzatzeko eta politika publikoak sustatzeko, aniztasunaren ikuspedia giza eskubideen errespetutik eta diskriminaziorik ezaren eta eskubide berdintasunaren printzipiotik sustatzeko, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan «inor atzean ez uzteko» konpromisoa garatzen dela bermatzea.

7

Uko egitea adierazpenen parte izateari, eta giza eskubideen aurkako ekintzetan, oro har, eta aniztasunaren eta diskriminaziorik ezaren ikuspigiaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren aurkako ekintzetan parte hartzeari.

4

Elkarbizi Sarearen funtzionamendu **oinarrietan ezarritako helburuak betetzen direla** bermatzeko lan egitea, batez ere honako hauek:

- Koordinazioa
- Estrategia komunak eta elkar ezagutza
- Sareko sentsibilizazioa
- Baterako ekintzak eta elkarlana
- Ezagutzaren kudeaketa eta partekatzea
- Udal mailako aniztasun politiken sendotzea
- Herri mailako elkarteekin harremanak sustatzea

8

Lankidetzako, partaidetzako, gardentasuneko eta osotasuneko estandar gorenei eustea Elkarbizi Sarearen funtzionamendu orokorrean.





1. Zer da Elkarbizi sarea?

Elkarbizi sarea Gipuzkoak Foru Aldundiaren proposamenari jarraituz eratu zen orain duela zenbait urte eta 2017tik aurrera, lan hau **Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikorako Zuzendaritzak** bideratutako Aniztasun II Foru Planaren barruan kokatzen da.

Elkarbizi Sarea Gipuzkoako udaletan dauden aniztasun teknikariak batzen dituen sarea da eta erakundeekin elkarlanerako duen espazioa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatua, Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritzaren bitartez.

Teknikari hauen perfila desberdina da eta beren zereginak ere aldatzen dira udal batetik bestera. Sarean parte hartzen duten guztiek aniztasun kulturala lantzen dute eta hori da sarearen xede nagusia.

Teknikari gehienek partekatzen duten beste ezaugarria, bere lana “bakarrik” egiten dutela da, ekiporik gabe. Hori dela eta sare lana beharrezkoa dute.

Ondorengo herriek hartzen dute parte sarean: Errenteria, Pasaia, Donostia, Zarautz, Hernani, Ordizia, Tolosaldea (28 udalerrri), Eibar, Arrasate, Urretxu, Azpeitia, Usurbil, Mutriku.

Helburu orokorrak:

- Sarea osatzen duten teknikarien arteko harremana eta elkarlana sustatzea eta beraien lana hobeto garatzeko **Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikorako zuzendaritzarekin zubi lanak bideratzea.**
- **Gipuzkoako II. Aniztasuneko Planaren** garapena lagundu, babestu eta bultzatzea.

Helburu espezifikoak:

- Udaletako aniztasun teknikarien lana sendotzea.
- Udaletako aniztasun teknikarien arteko lanak ahalbidetzea.
- Udaletako aniztasun teknikarien prestaketa beharrei erantzutea.
- Udaletako aniztasun teknikarien arteko elkarlana sustatzea.
- Udaletako aniztasun teknikarien arteko ezagutza partekatzea.



2. Zertarako Elkarbizi Sarea?

Teknikarien lana sendotu:

- Aniztasun teknikarien arteko harremanak indartzeko eta elkarlana sustatzeko.
- Herrietan Aniztasunaren lanketan ari diren teknikari berriei sarearen berri emateko eta sarearen parte izatera gonbidatzeko.

Elkarguneak ahalbidetu:

- Udaletan, kasu askotan bakarka, lan egiten duten aniztasun teknikariek beren lana, kezka eta jakinduriak beste teknikariekin partekatzeak aukera dute.
- Saio hauek maiztasunez egiten dira urtean 3-4 aldiz eta bertan elkartzen dira teknikari guztiak.
- Saio horietan interes orokorreko gaiak lantzeaz gain, hurrengo saioetan landu nahi diren gaiak ere proposatzen dira.
- Hainbat gai Gipuzkoako Foru Aldundiko beste zuzendaritzekin batera lantzen dira. Tarteka, Foru Aldundiko teknikariez gain herrietako beste sailtako teknikari batzuk ere parte hartzen dute saio hauetan zeharkako lana eta sinergiak bultzatuz.

TEKNIKARIEN LANA



.....



ELKARGUNEAK

PRESTAKUNTZA



.....



BATERAKO EKINTZAK

EZAGUTZA



Prestakuntza eskaini:

- Beharrezkoa ikusten denean saio espezifikoak antolatzen dira, baina normalean, ohiko hiru saio horietan bideratzen dugu formazioa
 - Praktika onak ezagutzea eta partekatzea. Sarekoak, Euskal Herrikoak edo kanpokoak.
 - Beste elkarteek edo erakundeek antolatzen dituzten formazio saioen inguruko informazioa zabaltzen da sareko teknikarien artean.
 - Gipuzkoako Foru Aldundiko beste sail batzuk ere parte hartzen dute Aldundi barruko zeharkako lana eta udalekiko koordinazioa indartzeko, lankidetzaren bitartez ekintzaren eraginkortasuna handitzeko.
-

Baterako ekintzak:

Herri desberdinetan gai berdinen inguruko jarduerak antolatu nahi denean, elkarrekin egitea sustatzen da, horretarako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren laguntza egon daitekeelarik.

Ezagutzaren kudeaketa:

- Herri bakoitzean egiten dena beste teknikariek partekatzen da.
- Herrietan egiten dena, dinamizatzailaren bidez, hainbat agenda eta buletinetan publikatzea bideratzen da.
- Beste elkarteek edo erakundeek antolatzen dituzten saioak edo sortzen dituzten baliabideak teknikariei bidaltzen zaizkie.
- Antolatzen diren jardueren informazioa biltzen da eta baliabide kutxara doaz, hori, teknikari guztien eskura jartzen delarik.



3. Nola antolatzen gara?

Osoko bilkurak:

Urtean zehar 3 osoko bilkura antolatzen dira gutxienez (urtarrila, ekaina eta iraila) eta bertan elkartzen dira Elkarbizi sarea osatzen duten udaletako aniztasun teknikari guztiak. 4 orduko saioak izaten dira.

Interes orokorreko gaiak lantzeaz gain Elkarbizi sareko urteko programa ere teknikariek batera osatzen da.

Saio hauetan Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoko zuzendariak eta teknikariak ere parte hartzen dute. Hauekin batera sarearen dinamizazioa egiten duen pertsona ere izaten da.



Sarearen dinamizatzailea

Elkarbizi Sarea dinamizatzeko, idazkaritza lanak egiteko eta bideratzeko eginkizunak ditu, eta sarearen etengabeko lana ziurtatzen du. Aldunditik kanpoko kontratazio baten bidez egiten da. Udal teknikarien beharrak modu zuzenean eta egokitan jasotzen dira proposamen eta eskaerei hobeto erantzuteko.



4. Zergatik eta nola parte hartu?

Gipuzkoako lurralde historikoan aniztasun kulturalaren esparruan lan egiten duten udaletako teknikariei guztiei irekitako partaidetza, baldin eta teknikari horren lanek zerikusia badute «II. Aniztasuneko Plana. Eskubide berdintasuna» planaren xedearekin.



Sarean parte hartzeak aukera hauek eskaintzen ditu:

- Udaleko aniztasun teknikariak beste herrietako teknikariekin babes eta laguntza izango du.
- Beste herrietan antolatzen diren jarduerak ezagutzeko eta herrian bertan antolatu ahal izateko beste teknikarien esperientzia izango ditu.
- Herrian bakar batean antolatzea zaila izan daitekeena, antzeko interesa duten beste herri batzuekin elkarlanean antolatzeko aukera izango du.
- Aniztasun Sarearekin (elkarleen sarea) ere topaketa egiten da, gizarte zibileko elkarrekin harremanak eta elkarrekintzak ahalbidetzeko.

Ekimen hau babestu eta Sarean parte hartu:

Elkarbizi sarearen inguruko informazio gehiago nahi izanez gero edo sareko kide izateko Elkarbizi Sarearen helbide honetara zuzendu zintezke: bizikidetza@gipuzkoa.eus

Elkarbizi Sareko parte-hartzaileen erantzukizunak

- Udalean, jarduera puntualetatik haratago aniztasuna lantzea edo lantzeko asmoa izatea eta horretarako erreferentziazko pertsona bat egotea.
- Urtean zehar antolatzen diren osoko bilkuratan parte hartzeko konpromisoa hartzea.
- Norberaren herrian antolatzen diren jarduerak sareko beste kideekin partekatzea.



